

MOZIO ARRUNTA

DONOSTIAKO MUGIKORTASUN EREDUA DELA-ETA

Amaia Almirallek, EH BILDU udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Donostiako mugikortasun eredua dela-eta.

JUSTIFIKAZIOA

2001etik hona, Donostiako eta eskualdeko mugikortasun eta garraio eredua hobetzeko hainbat alternatiba plazaratu izan dira: Tranbia, Tren-tram, eskualdeko autobus-lerro bereziak, burdinbideen zabalpena (XXI. Plan Estrategikoa), lurrazpiko metro-sarea... Horietako bakoitza, zegozkion txosten teknikoek alternatiba onena gisa aurkeztua. Dena den, inoiz ez da eztabaida konparatibo garden eta ireki bat gauzatu erakunde publikoen eta herritarren artean.

Eztabaida publiko hori eman ez den arren, 2008-2012 legegintzaldian, metro-pasantearen aldeko apustua inposatu zen eta eraikuntzarako izapideak aurrera eramane ziren. 2013. urte hasieran, ondorengo Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailburuak beharrezko ez zen "proiektu faraoniko" gisa izendatu bazuen ere -hain justu, herritar sektore ezberdinek egun egiten duten bezala-, EAJ eta PSE alderdien arteko akordio baten ondotik eta sailburuak esandakoaren aurka, metro-pasantearen proiektua berreskuratu zen eta azken urteetan azpiegitura hau eraikitzeke izapideak eman dira azkartasunez.

EH Bildurentzat, metro-pasanteak egiten duen moduan, positiboa da garraio publikoa indartu eta sareak zabaltzea, baina proiektu honek zalantza handiak sortarazten dizkigu hainbat arrazoiengatik: eskari-azterketek izan dituzten gora-behera eskandalagarriak, obra-proiektuaren aurretiazko kostua errentagarritasun sozialarekin alderatuta, kontrakotasun herritar esanguratsua, gardentasuna falta edo-eta azpiegituraren bideragarritasuna ekonomikoa bera.

Azken hilean, proiektu honekin zerikusi zuzena duten bi gertakizun eman dira. Batetik, pasantearen sustatzaileek zalantzak dituztela proiektuarekin; izan ere, finantzaketa gabe dago gaur egun. Eta bigarrena, Donostian mugikortasun-modalitate interesgarritzat dugun "28 BRT Lerroa" proiektua mahai-gaineratu duela Eusko Jaurlaritzak. Esandakoak agerian uzten du, oraindik orain, mugikortasun-eredua ezbaian dagoela, egungo proiektua zalantzan eta alternatibak mahai gainean.

Horregatik guztiagatik, EH BILDU udal taldeak honakoa aurkezten du:

MOZIOA ARRUNTA

1.- Donostiako Udalbatzaren Osoko Bilkurak dei egiten dio Eusko Jaurlaritzari proposa ditzala donostiarren mugikortasun beharrianak hobetzeko alternatiba erreal eta eraginkorrak; burdinbide sarean bestelako hobekuntzak, B.R.T. lerroak eta intermodalitate-azpiegiturak izan daitezkeen bezala.

2.- Donostiako Udalbatzaren Osoko Bilkurak eskatzen die Eusko Jaurlaritzari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari, Udalarekin elkarlanean, gardentasun eta eztabaida prozesu ireki bat abia dezatela mugikortasun-ereduaren inguruan, metro-pasante proiektua, XXI. Plan Estrategikoaren garapena zein bestelako garraio-azpiegitura alternatibak mahai gainean jarriko dituen.

Donostian, 2016eko maiatzaren 6^a.

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu udal taldeko bozeramailea